



Gure produktua berritzailea da, izan ere, ateetan imanak jartzen hasi diren arren, topeak egiteko ez dago imanezko sarraila duen atearik produzitu eta saltzen duen enpresarik.

Gainera gure imanezko sarrailak hainbat segurtasun sistema ditu. Izan ere imanak desaktibatzeke bi modu aurkitu ditugu: argindarra kenduta eta imana tenperatura oso altu nahiz oso baxuetara eramanda (Neodimioko imana arruntak 80°C-tara hasten dira bere imantazioa galtzen, zintak edo xaflak 85°C-tara eta ferrita imanak 250°C-tara "Datu hauek, SuperMagnete imanak egiten dituen enpresa famatutik atera ditugu").

Hau eragozteko, segurtasunezko sistema mekaniko bat sortu dugu. Sistema mekaniko honek argindarririk gabe gelditzean edo imanak tenperatura jakin bat hartzean atea automatikoki itxiko du betiko sarraila batek egingo luken moduan. Horrela imana desaktibattuko balitz bigarren segurtasun barrera bat izango du atearik.

Imanman proiektuaren alde garrantzitsuetariko bat gure bezeroen segurtasuna bermatzea da, beraien etxe bizitzetan seguru sentitzea eta ekonomikoki errentagarria izatea bai bezeroentzat baita guretzat ere. Beraien segurtasuna bermatzeko beraien erosten dituzten atearik gure enpresak instalatuko ditu eta behar dutenean agertzen zaizkien galderei erantzuteko eta arazoei konponbidea bilatzeko telefonoz nahiz web orri bidezko arreta zerbitzua eskainiko dugu 24 orduz, inor etxetik kanpo geratu ez dadin.

Gure atearik bezeroak segurtasuna bilatzen dutenez arazoren bat gertatuko balitz bost urteko bermea izango lukete ate berri eta dohain bat instalatzeko eta berriro seguru sentitzeko.

Honekin esan dezakegu bezeroak direla guretzat garrantzitsuenak eta beti bezeroa pozik eta eroso sentitzen saiatuko garela.

Gure ideiaren antzekoak existitzen dira, izan ere merkatuan badaude ate normaletan jartzeko imanezko krisketa gehigarriak baina gurea bezalakoa ez. Izan ere gurea ezberdina da, iman xaflak eta krisketaren bitartez gure atea segurtasun handikoak dira eta. Gainera gure produktuak hainbat segurtasun sistema mekaniko ere izango ditu argindar etete bat edo lapurreta saiakera bat dagoen kasuan atea mekanikoki ixteko.

Gainera gure ideia ez da produktua saltzea bakarrik. Gure enpresak produktua saltzeaz gain bere mantenimenduaz ere arduratuko gara. Eta denbora pasa ahala gure diru sarrerak ateen salmenten bidez lortu beharrean hauen mantenuarekin lortuko dugula aurreikusten dugu.

